



Zazpi-Itturri taldea finalerdietarako sailkatu da Berria Txapelketan

PILOTA ▶ Amezketarrak
52 tantorekin gailendu
ziren Leitzako Aurrera
taldearen aurkakoan

«**ARERIO GOGORRA**» ▶
Burlataren aurka ariko
dira Zazpi-Itturriko
pilotariak larunbatean ▶ 7



Aurrerako pilotariak, ostiralean Altzan jokatu zuten neurketan. HITZA



I. AZPILIKUETA

‘Totto’ri omenaldia, bere heriotzaren urteurrenean

ZIZURKIL ▶ Joselu Gerestari omenaldia egin
zieten herritarrek; egungo egoera politikoan
«bakerako aukerak» daudela esan zuten ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Enpresen batzordea «sindikatuekin biltzeko prest» azaldu da

Papergintzaren egoera aztertzeko
bilerarik ez dute oraindik proposatu ▶ 3

KOMUNIKABIDEAK ▶

Hamaika eta tokiko bost telebisten hitzarmena

Horien artean dago 28 kanala, Tolosaldeko komunikabideen baitan sortutakoa

ERREDAKZIOA

Hamaika Telebista Hedatze-ko Taldeak hitzarmenak sinatu ditu tokiko bost telebistarekin, zehazki, Goiena, Tolosaldeko Komunikabideak, Urola Kostako Komunikabideak, Goierri Ikuskari eta Oizmendi Telebistarekin. Debagoiena, Tolosaldea, Urola Kosta, Goierri eta Lea-Artibai Busturialdea eskualdeetan aritzen dira, hurrenez hurren, telebista horiek. Tolosaldeko Komunikabideak-en baitan dago duela gutxi gure eskualdean sortu zen 28 kanala katea.

Hitzarmen horien helburua da Jaurilaritzak barrutika banatuko dituen lurroko telebista digitalerako lizentziak eskuratzeko elkarlanean jardutea. Hala, Hamaikak enpresa horietako bakoitzean partaidetza izango du, eta enpresa horien bidez lehia-tuko da eskualde zehatz horretako lizentziaren bila.

Guztira, hamabost barrutitan banatu ditu Jaurilaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan telebista digitaletako lizentziak banatzeko. Beste hamar barrutietan ere aurkeztuko da Hamaika, eskualde bakoitzeko euskalgintzako eragileekin itunak eginda: Bilbon, Barakaldon, Getxon, Mungian, Durangaldean, Donostialdean, Oarso-Bidasoan, Gasteizen, Aiara eta Debabarrean. Barruti bakoitzean euskara hutsezko kate bat egon dadin bermatu nahi du Hamaikak.

Atzoko agerraldian agertu zuten, barrutietako lizentziak eskuratu ondoren euskarazko toki telebisten sarea antolatuta nahi dute, ekoizpen komunak egiteko eta publikizateak kudeatzeko. *Berria* argitaratzen duen eta HITZA egunkarietan partaidetza duen EKT enpresak, Corporacion Multimedia del Norte (*Noticias* taldeko egunkariak plazaratzen ditu), EKHEK (*Gara*-ren argitaratzailea), Euskaltelek, Elkarreke eta Baintek osatzen dute Hamaika Telebista Hedatze-ko Taldea.

PAPERGINTZA ▶

Sindikatuarekin biltzeko prest agertu da Adeg

Oraindik bilera egiteko data inork ez du proposatu; bien bitartean, sindikatuek grebarako beste dei bat luzatu dute



Grebarako deialdi berriak egin dituzte LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuek. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Bost hilabete eta gero, oraindik etenda daude sindikatuen eta Adegiren arteko elkarrizketak. Baina enpresen batzordeak prentsa ohar bat zabaldu du esanez, «berriro hitz egiteko prest dagoela». Hala ere, orain-

dik ez dira harremanetan jarri bi alderdiak, eta ez dago bilerarako data zehatzik.

Adegik azaldukoaren arabera, «2006ko urriaren 27an egindako azken bileran, sindikatuak izan ziren negoziaketarekin apurtu eta mahaitik alde egin zutenak, hori dela eta, be-

raiek izan behar lukete hurrengo pausoa eman eta berriro bilerara deitu behar luketenak». Izan ere, enpresa batzordearen esanetan, beraiek beti agertu dira hitz egiteko prest, «eta joko hori dago, ea nork deitzen duen lehenengo batzarrera ikustean».

Bestalde, LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuetakoek grebarako deialdi berriak luzatu dituzte. Hori dela eta, datorren asteetan batzarrak egiten hasiko dira, langileek lanuzteetara jo nahi duten edo ez erabakitzeko.

Duela hiru hilabete sindikatuetako ordezkariak azaldu zuten bezala jarraitzen du oraindik egoerak, «2006ko hitzarmena sinatu gabe dute, Adegik ez baitu sinatu nahi izan». Langileek eskatzen dutena da, urtean sei ordu gutxiago lan egitea, eta soldatak, %1,8a igotzea KPlaz gain. Baina, enpresa batzordearen ustetan, «hau gehiegizkoa da, papergintzaren egoera ez baita ona, sektoreko enpresa gehienak kolokan baitaude». Hala, beraiek egiten duten azken eskaintza ondorengoa da, lanorduek mantentzea eta KPlaz gain %1a igotzea, 2006ko hitzarmenaren nahiz ondorengo bietan. Beraien esanetan, egun papergintzako langileek batez beste 35 ordu egiten dituzte lan astean, «beste sektoreetan baina gutxiago».

2001 ean hasi ziren sindikatuen eta Adegiren arteko negoziaketak. 2000. urtera arte papergintzako enpresak beste elkarre batean zeuden, baina hau apurtzean sartu ziren Adegiren barruan. Hala, joan den urteko urritik hona, sindikatuen eta Adegiren arteko negoziaketak etenda daude, eta egun ez dute bilerarik egiten.

TOLOSA ▶ KULTURA

Txotxongiloen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaztetxoentzat, bihar

Tolosan duen tradizio eta izenagatik, ikasleentzako jardura ezberdinak prestatu dituzte

E. EZEIZA

Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna ospatzen da bihar mundu osoan. Hori dela eta, Tolosan duen izen eta tradizioa kontuan hartuta, hainbat ekitaldi prestatu dituzte jaia modu berezian ospatzeko.

Hasteko, 09:30ean, Laskorain Ikastolako, Samaniegoko eta Hirukidoko Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleak Leidor antzokia joango dira Taun Taun antzerki talde bergararraren *Baltuta* saioa ikusteko. Ondoren, Euskal Herria pla-

zara joango dira, etorkizuneari Txotxongiloen Nazioarteko Egoitza izango dena, eta han ikastaro berezi bat emango die Elena Aranbarrik. Honekin batera, aurtengo pregoia izango dena irakurriko dute. Hau Sentosuke Takeala-k idatzi du. 1939an jaio zen japoniar ho-

nek lan handia egin zuen Txotxongiloen munduan, telebistan nahiz antzokietan. UNIMAKO Batzorde Exekutiboko kide izan zen. Japoniako UNIMAKO Ohorezko Lehendakari ere izan zen, Takeda Memorial International-eko zuzendari izateaz gain.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Elkarrizketak. Joxemi Saizarrek Gerra Zibilaren inguruan egindako elkarrizketak ikusgai daude TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean.

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.
Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.
Garbitzaileak. Sukalde eta

jangeletako garbiketarako langileak behar dira. 943 44 48 66.

ESKUALDATZEA
Loradenda. Erretiroagatik, loradenda eskualdatzen dut material eta gutzi, Lasarten. Kokapen ezin

hobea. Baldintza interesgarriak. 626 10 56 89.

SALGAI
Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuek deitu 615 75 57 62ra.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

'Ttotto'ri omenaldia bere heriotzaren 8. urteurrenean

Euskal Herrian «marko demokratikoa ezartzeko» beste alderdiek «borondaterik ez dutela» dio ezker abertzaleak

IMANOL GARCIA

Jose Luis Geresta *Ttotori* omenaldia egin zioten herenegun bere izena duen plazan. Zortzi urte betetzen dira gaur bere gorputza azaldu zela Oreretako Zabalbide auzoan. Bertso ofizialak zabaldu zuenaren arabera, bere buruaz beste egin zuen *Ttottok*. Ezker abertzalearen arabera, «*Ttotorren* hilketak gerra zikinaren beste atal bat» izan zen.

Igandean egindako ekitaldiak mendi martxarekin hasi ziren, non 50 lagun inguru bildu ziren. Ondoren, eguerdian, lore eskaintza egin zioten 70 lagun inguruk Urkamendi mendian gudariaren omenez dagoen monolitoan. Hori eta gero, ekitaldi nagusia egin zen omenduak izena eman dioten plazan. Han ere 70 lagun inguru bildu ziren. Lore eskaintza egin zuten bere lagunek, txalaparta eta adarra jo zuten eta Naroa Geresta eta Joakin Arregi bertsolariak omenaldia eskaini zuten. Aurrekoa ere dantzatu zioten omenuari.

«Aukerak daude»

Ekitaldian zehar Zizurkilgo ezker abertzaleak egungo egoeraz hitz egin zuen. «Euskal Herria bakera eta marko demo-



Ttotorren omenaldiaren une bat. IBON AZPIJKUETA

kratikora ekartzeko aukerak daude», azaldu zuen, «baina horretarako borondatea behar da eta beste alderdiek ez dute erakusten borondaterik». Hala, beste alderdiak «arduragabekeria» jokatzeko ari direla azaldu zuen eta mahai politikoa eta eztabaida politikoa «atzeratzen» ari direla salatu.

Konponbidea gauzatzeko aukerak daudela azaldu zuen ezker abertzaleak, baina «beste jarrera bat» behar dela zioen. Bestalde, PSOEri eta EAJri bidean «oztoporik ez jartzeko» exijitu zieten eta «hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea» aldarrikatu zuten. Konponbidea lortzeko «marko de-

marko demokratikoa» ezartzea beharrezkoa zela adierazi zuten, hau da, «ideia politikoko guztiak defendagarri eta gauzagarri izatea». Horretarako bi oinarri beharrezkoak zirela azaldu zuten. Alde batetik, «Euskal Herria nazioa dela aitortzea» eta, bestetik, «euskal hiritar guztiak bere etorkizuna erabakitzeko aukera izatea». Bestalde, *Ttotto* gogoratuz, ekitaldian izandakoei «adi mantentzeko» esan zien «erasoei eta erreprosoei aurre egiteko».

Ttotorren omenaldi ekitaldiak gaur bukatuko dira. 20:00etan, hilerrian, omenaldia eta lore eskaintza egingo diote.

KORRIKA 15 ▶

Antolatzaileak gustura Gureako ekitaldiarekin

Ehun bat lagun inguru Gu Ta Gutarrak-en eta Karidadeko Bentaren emanaldian

I. GARCIA

Balantze baikorra egin dute Villabonan antolatutako larunbat gaueko Korrika Kulturaleko arduradunek. Gu Ta Gutarrak eta Karidadeko Benta taldeek «oso giro polita» sortu zuten, antolatzaileen esanetan. Guztira ehun bat lagun izan ziren Gurean, Korrikaren etorrerarako prestatzen.

Jende gehiago hurbiltzea nahiago zuten antolatzaileek, baina garbi dute ere Korrika Kulturaleko helburua «jendeari ekitaldi kulturak eskaintzea» dela. Gu Ta Gutarrak taldearen emanadiak eta gero, Karidadeko Bentako taldekideek giroa goxotu zuten, ikusle goiari jatekoa eta edatekoa eskainiz. «Jon Maiak asko animatu zuen ekitaldia», azaltzen dute antolakuntzatik. «Denbora luzez taula gainetik jaitsi eta ikusle goiaren artean aritu zen».

Kontzertuaren amaieran, bi taldeetako kideak igo ziren taulatura eta 7 Eskale taldearen doinu bat jo zuten, Igor Elortzak, Unai Iturriagak eta Jon Maiak bat batean bertso-

ak botatzen zituztelarik musikari jarraituz. «Ikusentzuleak oso gustura gelditu ziren eta bi taldeetako kideak ere bai kontzertuan izandako giroarekin», nabarmendu zuten antolatzaileak.

50 haur margotzen

Larunbat goizean beste ekitaldi bat antolatu zuten Korrikarekin zerikusia zuena Villabonan. Haurrei zuzenduta, margoketa tailerra antolatu zuten. 50 haur inguru agertu ziren eta Korrikaren inguruko marrazkiak margotu zituzten. Pare bat orduz aritu ziren bertan. Ekitaldiak iraun bitartean Korrikaren material ezberdinarekin jarritako postuak ere arrakasta izan zuten, antolatzaileen esanetan.

Korrikarekin lotutako hurrengo ekitaldia Zizurkilen izango da. Bihar, hain zuzen ere, 19:00etatik aurrera, Korrikaren 15. edizioaren aurkezpena egingo dute eta ondoren hitzaldia antolatu dute Atxulondo kultur etxean. Hitzaldia Guillermo Piquerok emango du, *La senda aborigen* liburuaren egileak.

ANOETA ▶

Hitzaldia emango du bihar LAB sindikatuak

LAB sindikatuak hitzaldia emango du bihar Anoetako udaletxean. *LAB sindikatua*ren *erronkak eta hauteskunde sindikalak* izango da hitzaldiaren izenburua. Hitzaldiari 19:00etan emango zaio hasiera.

ANOETA ▶

Yoga ikastaroa kiroldegian apiriletik ekainera

Yoga ikastaroa antolatu dute kiroldegian apirilaren 3tik ekainaren 27ra. Astean behin izango da: asteartetan 10:00etatik 11:30era edo asteazkenetan 18:45etik 20:15era. Izen-ematea hilaren 30a baino lehen egin behar da.

KARRANTZA IRUÑEA 2007

heldu

ELKARLANARI LEKUKOARI HITZARI EUSKARARI HERRIARI

15. aek

korrika badator!

MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

aek



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ALEGIA ▶ HEZKUNTZA

Uruguaitik hurbilago, jolasaren bitartez

San Juan eskolako ikasleek aste osoan zehar lurralde honi buruzko ezaugarri orokorrak ezagutuko dituzte

NEREA URBIZU

Alegiko San Juan eskolan Uru-guai Astea ari dira ospatzen. «Eskolan lurralde honetako bi ikasle ditugu, eta horregatik landuko dugu lurralde hau», adierazi zuten Alegiko San Juan eskolako irakasleek. Asmoa, ikastetxean, kanpotik etorritako haurren jatorrizko lurraldea lantzea izango da: hau hirugarrena izan da.

Jolas orduetan Uruguai bertako jolasetara jolastu egingo dute. «Ikasle uruguaitarrek aste honetan asko lagundu digute, eta beraiek ere, inor baino gehiago, modu berezian bizitzen ari dira egun hauek».

Panel informatiboak jarri dituzte ikastetxean zehar, bertan, Uruguairi buruzkoak isladatu. «Lantzen ari gara ezau-garri orokorrak dira: gastronomia, hizkuntza, musika, jokuak edota demografia, eta, noski, ziklo bakoitzari egokituta egiten ari gara». Jolas orduetan jokuak lantzen ari dira, eta klasean, berriz, informazio teorikoa goa jasotzen dute. Eskoletara sartu aurretik, bertako musika jartzen ari dira ere.

Uruguairi buruzko informazioa eta jokuak «Uruguai gurasoen bitartez, eta liburu zehatz batzuen bitartez jaso dugu. Janariarekin berdín egin dugu; gurasoek asko lagundu digute. Dena bukatzen dugunean, lantxo hau haiei emango diegu, oroigarri gisa». Haurrek honela modu errazean eta desberdinean ikasten dute, eta orain arte «oso ondo joan da; oso pozik daude umeak».

Hurrengoan, Maroko

Aurtengo ikasturtea da ekitaldi hau eskola maila bezala egiten dutena: «Beste urteetan gelan bertan landu izan dugu, baina hori, klaseko ikasleekin bakarrik. Aurtén, eskola mailan egiten hasi gara: eskolan Maroko, Venezuelako, Uruguai eta Portugalgo ikasleak ditugu, eta aurtén, beraz, horiek landuko ditugu». Dagoeneko, Venezuelako eta Portugal landu dituzte, eta maiatza aldera, Maroko egingo dute, aurtengo azkenea. Hurrengo urtean, kontinente bakoitzeko lurralde bana landuko dute.



Muralak jarri dituzte eskolako pasiloetan zehar. N. URBIZU

ALEGIA ▶ GIZARTEA

AKO aldizkarian parte hartzeko bilera, gaur

Kudeaketa eraman dutenek utzi nahi dute kargua, eta jende berriaren premian daude

N. URBIZU

AKO (Alegiko Kultur Orria) aldizkarirako jende berriaren bila dabilta aurreko kolaboratzaileak. Horretarako, gaur Kultur Etxean 19:00etan bilera egingo dute. Duela 7 urte sortu zen herritar batzuk bilduta.

Hasieran hilabetekaria zen, baina azkenean sei hilabetekaria bihurtu da, «gero eta jende gutxiago baitauek».

Azken 2 urteetan aldizkariaren kudeaketa 3 lagun artean eraman dute. Gero, idazteko nolabaiteko idazle-sare bat daukate osatuta. Baina kudeaketa eraman dutenak nekatu dira, eta uzteko asmotan daude. Horregatik beste talde txiki bat osatzeko jende bila ari dira. Herriko kultur dinamizatzaileekin eta AKO hasieran sortu zuten batzuekin bildu dira. Edozeinentzat irekia da.



*Euskaltelek estaldura berria du.
Eta zuretzat da.*

POLITIKA ▶

Aranalde eta Altuna atxilotu zituztela bi urte bete dira

Sendiek «indartsu eta oinarrizko eskubideen alde borrokan gogor» daudela diote

ASIER IMAZ

2005eko martxoaren 19an atxilotu zituzten Maite Aranalde eta Haimar Altuna Le Cap d'Adge (Frantzia) herrian. Lizartarra eta ibartarra, epaiketaren esperoan aurkitzen dira Meaux eta Fresneseko espetxeetan. Ibarako Etxeratetik jakinarazi dutenez, hilabeteko azken ostiralean omenaldia egingo zaie, Ekaitz Aramendi eta Eider Ijurkori bezala, izan ere hauen kasuan, martxoak 25ean beteko dira espetxeratu zituztenetik 5 urte.

Altuna eta Aranalderekin sendiak, «oso indartsu eta gogotsu» daudela jakinarazi dute. «Nahiz eta baldintza oso gogo-

rretan egon, borrokari tinko eusten diotela» gehituaz. Bi preso politikoak, epaiketaren zain dauden arren, bi edo hiru hilabetean behin Parisera eramaten dituzte epailearen aurretik pasa eta «kondena berriztatzeko». Altunaren aitak salatu duenez, «oso baldintza txarrean eramaten dituzte, gela txiki batean, jarrera behartuan eta erabat lotuta».

Moduloan guztira 3 preso politiko aurkitzen dira bien kasuan. Hala ere, Haimar Altunak «23 ordu pasatzen ditu egunero bakarrik zeldan» eta Maite Aranalde berriz «22 ordu; kideak ikusteko ikastaroak» egin behar izaten omen ditu.

Altunaren espetxean «diszi-



plina militar moduko bat dago preso guztiekin, aurten gainera gogorrago jarri dira eta eskubideak erdira jaitsi» dizkiela esaten du bere aitak. «Hilabete ordu eta erdiko hiru bisita bakarrik ditu. Denbora hori, gehienetan murrizten saiatzen dira funtzionariak. Egun batean egiten dutena ez dakite hu-

rrengo egunean egin ahal izango duten», esaten zuen bere aitak. Bisitaren kostu ekonomikoak eta gai honetan jasotzen duten laguntza eza ere salatu dute. Hala eta guztiz ere, bi preso politikoen senideen esanetan, «gogor diraute euren eskubideen aldeko borrokan eta oso indartsu ikusten ditugu».

IBARRA ▶

Ibarra FSk berdinketa lortu zuen etxean

Larunbat gauean Belabietan jokatu zuen partidari, 2-2ko berdinketa eskuratu zuen Ibarra laugarren doan Bur-lataren aurka. David Prados tolosarrak bere zelaitik sarturiko gol baten bidez aurreratu ziren ibartarrak, baina berdinketa bi minutu ondoren iritsi zen. Berriz ere aurreratzea lortu zuten arren Ion Ander Karreraren gol bidez, azken berdinketa bigarren zatian lortu zuten nafarrek. Gazteek berriz, Jubenil Kopan lehen postua lortu zuten etxean 10-1, Leioako Gaztelueta garaitu ondoren.

IBARRA ▶

Gurasoei zuzendutako tailerrak apirillean

Ibarako Udalak, gaztelera hutsean zabaldu duen deialdi baten arabera, Uzturpe Ikastolarekin elkarlanean antolatzen ari den tailer baten parte-hartze deialdia egin du. Gurasoentzat zuzendua dago, eta arazoei aurre nola egin aztertuko dute. Izena emateko epea apirilak 4ean amaituko da eta Udaltxeko Gizarte Zerbitzuen sailan utzi beharko dira datuak.

IBARRA ▶ KULTURA

'Sua' Gorritin

A. imaz ▶ Eneko Arizaren Lagunak Kultur Elkarteko (EAL) kideak larunbatean elkartu ziren Gorriti gaineko basoan, segada eszena bat grabatzeko asmoz. Ahoz aho eta prentsaren bitartez deialdi zabala egin

zuten lehenik, milizia osatzeko jende eske. Erantzunarekin gustura azaldu ziren EALkoak eta «eskerrak» eman dizkie azaldu ziren guztiei. Bazkaldu ostean hasi ziren grabaketarekin, Milizia eta herritarren arteko borrokaldia irudikatu zuten, Egund pasazazpirak aldera amaitu zuten. HITZA



hilberria ▶



Begoña Beloki Labaka

Elkarrekin zenbat jira parrandara ta mendira zure ezpainen irri ezitia ta aurpegian diztira zure lagunen bihotz erdian betiko gelditzen dira.

Zaldibiako hire betiko lagunek.

ZALDIBIA, 2007ko martxoaren 20a

urteurrena ▶

Bide bat hartu zenun nahiz eta izan gazte bizi nahiean gure Euskal Herri baketsu batean aske gure ametsa egi bihurtzen segiko dugu jo ta ke askatasunan hegal azpian denak bildu arte. Agur eta ohore! Nekane



Joxelu Geresta «Ttoto»

1999ko martxoaren 20an eraila

hilberria ▶

Juliana Larrea Azurmendi «Patxi Zabaletaren alarguna»

(Patxi Zabaletaren alarguna)



Zegamako zure ilobek, maitasunez.

ZEGAMA, 2007ko martxoaren 20a

BERASTEGI ▶

Gaztainondok irteera antolatu du egun osorako

Larunbat honetan izango da irteera Ultzama-Larraun bailarara. Goizeko 09:30ean irteerako dira eta museo eta kobazuloa bisitatzeaz gain, bazkaria ere sartzen dira egitarauan. Izena emateko Gaztainondo Elkarteko zuzendariarekin jarri behar da harremanetan.

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

PILOTA ▶

Amezketako Zazpi-Itturri Berria Txapelketako finalerdietarako sailkatu da

Leitzako Aurrera taldea finalaurrekoen atarian gelditu da, galtzaileetatik puntu gehien atera dituenen artean Baztango Txaruta sailkatu baitzen herenegun



Zazpi-Itturri eta Aurrerako pilotariak, ostiralean, Altzan. HITZA

NAIARA GARZIA

Ostiralean Zazpi-Itturri eta Aurrera taldeen artean Altzan jokaturiko Berria Txapelketako hirugarren kanporaketan Amezketako Zazpi-Itturri taldea gailendu zen, 52 tantore-

kin. Asteburuan txapelketa honen barruan hiru norgehiagoka jokatu ziren eta hiru irabazleez gain, galtzaileetatik puntu gehien ateratzen zituena ere sailkatzen zen. Azkenean, Leitzako Aurrera taldea finalerdien atarian gelditu da, 39 tan-

torekin, galtzaileen artean Baztango Txaruta taldea sailkatu baita, 40 tanto lortu ondoren.

Altzako pilotalekuan ostiralean jokatu ziren hiru norgehiagoketatik bi emaitza aldetik oso garbiak izan ziren, bai kadete bai nagusia ere.

Gazteen partida izan zen borrokatuena, beste bietan nahiz talde batek nahiz besteak oso erraz irabazi baitzuen.

Norgehiagokak

Kadeteetan Jon Jaunarena eta Joseba Iraola 22-8 emaitzarekin gailendu ziren. Patxi Sagastibeltzak, Aurrera Pilota Eskolako arduradunetako batek, azaldu duen bezala, «kadeteena leitzarren erakustaldi argia izan zen». Pilotalekua betexea izan arren, isiltasuna izan zen nabarmen. Xalton Zabala, Zazpi-Itturriko entrenatzailearen ustez, «Jon Jaunarenak ezberdintasun handia markatzen du eta pentsatzen genuen bezala galdu egin genuen. Hala ere, 18 bat tanto egingo genituela pentsatzen genuen eta 8 tantorekin galdu ondoren, behartuta geunden beste bi partidak irabaztea».

Azkeneko norgehiagokan, berriz, nagusien mailakoan, amezketarrak izan ziren erakustaldia eman zutenak, 22-5 irabazi baitzuten. «Garbitu egin gintuzten», dio Sagastibeltzak.

Hiru norgehiagoka hauetatik, gazteena izan zen lehiatu eta parekatuena, azkenean amezketarrek 22-12 emaitza-

rekin irabazi bazuten ere. Sagastibeltzak dioenez, «Leitzako pilotariak ez zuten bere maila eman, baina hala ere partida gogorra jokatu zuten. Lehengo zatira arte oso borrokatua izan zen, baina gero Zazpi-Itturri taldekoak joan egin ziren». Norgehiagoka hasieran amezketarrak 9-3 irabazten hasi baziren ere, gero markagailua 9-9an jarri zen. «Hasieran oso parekatuta joan zen, baina gero tantoak gehitu eta zortea izan genuen, aurkariak 12 tantorekin utzi baikenituen».

Leitzako Aurrera taldekoak dagoeneko kanpoan gelditu diren arren, «oso pozik» daude lortutakoarekin. «Ez genuen uste honeraino iritsiko ginenik», izan ere, Euskal Herriko 6 talderik hobereenen artean gelditu dira, eta finalerdietarako atarian, puntu bakarrarengatik. «Larunbatean Burlatakoek 36 tanto lortu ondoren, oraindik sailkatzeko aukerak genituen, baina igandean, baztandarrek 40 puntorekin partida galdu zuten, haiek sailkatu dira».

Finalaurrekoak

Zazpi-Itturri Burlataren aurka lehiatuko da larunbatean jokatuko den finalaurrekoan. Zabalaren ustez, «finalerdia nahiko gaizki ikusten dut, Irurtzun aurtengo talderik indartsuena baita. Lehengo urteko txapeladuan aurka 3 norgehiagokak irabazi dituzte, aurtengo errebelazioan bihurtuz. Oso onak dira hiru mailatan, baina gure pilotarietaz ere ezin gara kexatu. Nahiz eta kadeteetan galdu, irabazten mailako norgehiagoka irabaziz gero, zerbait egin dezakegu. Hala ere, norgehiagokak oso gogorrak izango direla argi ikusten dut».

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47. beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Amezketak. 90m2ko sartzeko moduan dagoen etxebizitza. 3 logela eta 2 bainugela.

Amezketak, Berastegi, Tolosa eta Zizurkil. Berastegi, Tolosa, Zizurkil, hainbat etxe bifamiliarrak eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskuokak.

Anoeta. Duela gubiko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje ibxia aukeran. Oso egoera onean.

Anoeta. Solkorre. 86 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Distribuzio ona.

Belautza. Etxe bifamiliarra salgai. Rustiko erara jarria. Ezin hobeto. 500m2ko lorategiarekin.

Berrobi. Guztiz berritua. 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz kanpoaldera. Parkinarekin.

Irura. Labadero, 100 m2. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailuarekin.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Berokuntzarekin eta jantzia.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.

Berokuntzarekin.

Ibarra. Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela; dena kanpoaldera. 180.300 euro.

Legorreta. Trastelekua salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Villabona. Kale berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin. 324.600 euro.

Villabona. Larrea. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Altua igogailuarekin. Guztiz berritua eta jantzia. 288.500 euro.

Zizurkil. Etxe abikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin

hobeto dago. Orientazio paregabea du.

Tolosa. Sputniks. Duplexa salgai. Berrituta eta berokuntzarekin. Altua, igogailuarekin.

Tolosa. Agintari. Bizitzera sartzeko moduan. 2 logela. Kanpoaldera eta argitsua. Pisuaren prezioa: 186.315 euro.

Tolosa. Nafarroako ibilbidea. 3 logela eta 2 bainugela pisua salgai. Berrituta. Berokuntza eta igogailuarekin.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. Prezioa: 228.384 euro.

Tolosa. Amarotz. 3 logela, trasteleku eta berokuntzarekin. Pisu ederra salgai. Berrituta.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 98 m2ko pisu

zoragarria salgai. Ikuspegi ezin hobekak. Estreinatzeko. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregi. 92 m2ko pisua. 3 logela ditu eta 2 bainugela. Guztiz berrituta dago eta estreinatzeko. Garajearekin.

Tolosa. Kondeko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailuarekin.

Tolosa. San Frantzisko. 50 m2ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 125 m2ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. SAM. Iskineko etxe abikia salgai. Porke eta guzti dauka.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. AKO aldikariaren egoera aztertuko dute, kudeaketa eraman dutenak «nekatu dira», eta uzteko asmotan daude. Taldeko bat osatzeko jende bila ari dira. Bilera egingo dute, 19:00etan, Kultur Etxean.

Tolosa. Udaberri Dantzari Taldeak hilaren 31n antolatu duen erromeria afarirako txartelak salgai daude Kimetz, Zumbeltz eta Garikano dendetan 20 eurotan (haurrek 15).

Tolosa. 2005-06 ikasturtean DBHko ikasketak Laskorain Ikastolan amaitu zutenek titulua idazkaritza jaso dezakete, astean zehar 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Villabona. Biltoki jubilatutako elkarrekin irteera antolatu du hilaren 26rako: irteera 9:00etan Ulatik eta Olaederra kirodegitik, hamaiketako Higer faroa jatebean, paseoa Hondarribian, bazkaria Oiartzungo Aduriz sagardotegian.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan ikusgai dira hilabete honen amaierara arte, Pilarxo Elozegi tolosarraren oleo, paisaia eta bodegoiak.

Alegia. Isabel Azpiroztekin egindako margolanak daude Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai. Apirilaren 16ra arte, asteartetik igandera bitarte.

Tolosa. Ander Gillenearen *Sahararak. Herri bat erbestean* argazki erakusketa Aranburun.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HitzaZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Anaitasuna bultzatuz

LEABURU ▶ Leaburuarrek Lapurdiko Larresorokoekin egun pasa egin zuten herenegun, bi herrien arteko anaitasunaren ekitaldien baitan



Autobusean heldu ziren Larresoroko lagunak; ondoren, guztioak batera argazkia egin zuten. I. AZPIRIKIJETA

ERREDAKZIOA

U sadioari jarraituz, Leaburuko herritarrek Lapurdiko Larresoroko «lagunekin» elkartu ziren herenegun, Leabururantz bertan. Autobus batean heldu ziren Iparaldekoak, «gogotsu eta ilusioz» eta plazan zain zizutuz euren Leaburuko «anaiak». 1996an egin zuten anaitasuna eta ordutik urtero elkartzen dira. «Bi hiztordu izaten ditugu urtean, martxoan haiek etortzen dira sagardotegira eta uztailean gu hara joaten gara Euskararen aldeko egunean», azaldu du Amalia Aduriagak.

12:30ak aldera elkartu eta trikitixen doinupean kalejira egin zuten herriak. «Guztira 55 lagun izan ginen, oso giro polita sortu zen». Bazkaria, berriz, Otazu sagardotegian egin zuten Leaburu-Txaramako herritarrek. Adin guztietakoak bildu ziren ekimenean. «Gaztetxoak ere gurekin etorri ziren, guztira 16 ume izan ziren».

«Azkar» heldu zen agurtzeko gogoa, arratsalde partean berriz autobusera igo eta martxa egin baitzuten. Uztaileko topaketa prestatzen hasi behar-ko dute dagoeneko.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Anttoni! Etxeko guztien, iloba eta birriloa guztien partetik. Muxu handi bat.

URTE ASKOAN
 Itsaso Oreja Mitxelena (Tolosa). Zorionak etxekoan eta aiton-amonen partetik.



AUPA JOSEMA!
 Menuillo horiek jateko irrikitan gaude. Muxu potoloak. Familia.



Antxumea aker bihurtu baino len, zuek Txindoki puntan. Eutsi goiai Maite ta Haimar! Orendaindik jo ta ke!